

“Espainian ez dago borondate politikorik bioaniztasunari eusteko”

Fernando Prieto

Ekologian doktorea eta Iraunkortasunaren Behatokiko zuzendaria

Ekologian doktorea eta Iraunkortasunaren Behatokiko zuzendaria da Fernando Prieto, eta haren iritziz, Espainian egoera txarrean dago bioaniztasunaren kontserbazioa. Aditu honen ustez (25 urteko esperientzia du ingurumen gaietan), ez da beharrezko neurririk hartzen espezieak eta ekosistemak babesteko. Berak zuzentzen duen erakundeak txosten bat aurkeztu du hilabete honetan, “SOS16”, non zenbait datu kezkarri ematen diren bioaniztasunak gure herrialdean duen egoeraren inguruan.

Zer-nolako egoeran dago bioaniztasuna Espainian? Bioaniztasun handia du, baina kontserbazio egoera txarrean. Suntsitze prozesu bat pairatzen ari da. Bereziki kezkarria, arrain espezieen egoera, eta deigarria, beste talde batzuen inguruko ezagutza falta, ornogabeen ingurukoa, adibidez. Erleei kalte larria egiten diete pestiziden erabilerak eta zenbait izurritek. Espezie enblematikoak ere ez daude behar bezala zaintuta, otsoa, hartza eta katamotza, esaterako. Ez Administrazioak eta ez enpresek hartzen dute behar bezalako neurririk. Nazio Batuen Erakundeak 2011-2020 aldirako egin zuen Bioaniztasun Biltzarraren bost helburuak bete behar ditu Espainiak, baina ez du egiten edo zati batean baino ez.

Zer espero daiteke datozen urteetarako? Gauzak larritzea. Klima aldaketaren ondorioak dira mehatxu nagusia, tenperatura handitzea, adibidez, ur falta handiagoa eta indar handiko ekaitzak. Berriki onartu den Kosten Legea arrisku handia da itsasertzetako ekosistementzat.

Zuen behatokiak txosten berria egin du Espainiako Bioaniztasunaren inguruan, “SOS16”; zer nabarmenduko zenuke? Basoetako suteek gainazal handiak kiskaltzen dituztela urtero. 2015. urtean, 193 hektarea erre ziren, 2014an halako bi eta gehiago, eta ba-

soen gainazala kontuan hartuz, hiru halako. Gainera, mehatxupean daude anfibioen %34, narrastien %32, arrain kontinentalen %54, ugaztunen %20 eta hegazti ugaltzaileen %25. Planifikazio falta handia dago basoko ekosistema askotan. Gainazal babestu asko paporean baino ez dira babestuak. Hain zuzen, autonomia erkidego batzuek gainazal babestu gutxiago dute beste batzuek baino, adibidez Galiziak.

Zergatik gertatzen da hori? Arrazoi nagusiak dira habitatak galtzea eta hondatzea, kutsadura, espezie inbaditzaileen bilakaera, baliabideen gehiegizko ustiatzea, klima aldaketa, aldagarritasun genetikoak galtzea eta desertifikazioa. Ez dira hartzen zientzian oinarritutako erabakiak. Landa eremuak eta abeltzaintza estentsiboa bazterrean uztea hondamendia da. Kontserbazio politika berriak gerriko berde handiak ezarri behar ditu mediterraneoan eta atlantikoan. Hiriek bioaniztasuna sartu behar dute beren bektore guztietan, landareak izango dituzten teilatu lauak diseinatu behar dituzte, fatxada berdeak, ur xafak... Faunarentzako igarobideak egin behar dira, edo bioaniztasun handiena duten ekosistemetan eragin txikiagoa duten azpiegiturak diseinatu.

Ba al da nabarmenezko moduko kasu larriren bat? Sabiñanigon Inquinosa egin dituen isuri ezin larriagoak, Fertiberiak Huelvako paduretan egin dituenak edo Ercross-ek Flix-eko urtegiaren egindakoak. Hor daude suak urtero harrapatzen dituen gainazalak edo higiezin burbuila gorenean zegoenean lurzoru artifiziala 5 hektarea handitzea ordu bakoitzeko; egoera horiek ez lukete berriz gertatu behar. Badira beste gai deigarri batzuk ere: diru asko erabiltzea katamotzak hazteko eta neurririk ez hartzea ibilgai-luek harrapa ez ditzaten. Otsoak ehizatzea ere bai, ekosistemen ingeniari handi horiek, zerbidoak eta basurdeak

kontrolatzen dituztenak. Horretaz gain, negargarria da ur kontinentalen egoera; iragazki berdeekin urak arazteko plan handi bat behar da udalerrir guztietan.

Zein dira arduradun nagusiak? Espainian jarraitu egiten da bioaniztasunaren kaltetan diren diru laguntzak ematen, adibidez Nekazaritza Politika Bateratuko zenbait jarduerarentzat. Baita hirigintza eta azpiegiturak ere. Ez dago borondate politikorik.

Ba al dago herrialderen bat bereziki aktiboa dena kontserbazio politikean? Yale eta Columbiako unibertsitateek Ingurumen Errendimenduko Indizea kalkulatu dute, horren arabera, Hungaria, Eslovakia, Eslovenia, Polonia eta Alemania dira Europako herrialderik aktiboena. Espainia 21. lekuan ageri da. Frantziak, adibidez, politika egokiak egiten ditu hirietan bioaniztasuna txertatzeko; Kenyak eta Tanzaniak kontserbazio politika aktiboak dituzte, eta safarien bidez bihurtzen dituzte errentagarri.

Natura Kontserbatzeko Fundazioen Elkarteak esaten du Europako Batasunean natura eta landa garapena sustatzeko ziren milioi asko beste helburu batzuetarako erabili direla. Nekazaritza Politika Bateratua berritu egin behar da, eta enborreko bihurtu behar du bioaniztasunarekin eta klima aldaketarekin zerikusia duen guztia. Landa eremuak jendez hustea mehatxu larria da eta NPBk ez dio behar bezalako arretarik jartzen. Itsasertzen politikak edo azpiegiturenak ere ez dute aintzat hartu.

Zer egin dezakegu herritarrek? Suteei aurrea hartu, olio erabilien edo produktu toxikoen isuriak saihestu, ahalik eta inpaktu txikiena duten produktuak kontsumitu. eta espezieen kontserbazioa gehien babesten duten aukera politikoen alde egin.

➔ www.consumer.es

